EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**LEHENDAKARITZA**
Komunikaziorako uzendaritza

**PRESIDENCIA**
Dirección de Comunicación

# GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

# CONSEJO DE GOBIERNO

Dosier de Prensa
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailak 15**

**Vitoria-Gasteiz, 15 de septiembre de 2020**

Navarra, 2 – 01007 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 017 972 – e-mail: prentsa@ej-gv.es

## Hezkuntza

### 623,5 MILIOI IKASTETXE PRIBATUEN HEZKUNTZA-ITUNAK FINANTZATZEKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du, Euskadiko unibertsitatez kanpoko ikastetxe pribatuen 2020-2021 ikasturteko hezkuntza-itunak gauzatu ahal izateko gastu aurreikuspena. Gastu aurreikuspena 623.540.584,77 eurokoa da, 7.159 gela ituntzeko.

2020ko martxoan, 2020-2021 ikasturtean itundu beharreko gelen eskariak aurkezteko epea ireki zien Hezkuntza Sailak itunpeko ikastetxeei. Honako ikasketa hauek itundu daitezke: Haur Hezkuntza (bigarren zikloa), Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa. Era berean, Hezkuntza Bereziko gela egonkorrak eta zereginen ikasketarako gelak ere ituntzen dira.

Eskaera horien ebazpena egin ondoren, 2020-2021 ikasturte honetan 314 itunpeko ikastetxe daude Euskadin: 34 Araban, 160 Bizkaian eta 120 Gipuzkoan. Orotara, 7.159 itunpeko gela batzen dituzte guztien artean, gorago aipaturiko unibertsitatez kanpoko hezkuntza mailetakoak.

Hezkuntza-itunen bidez, ikastetxe pribatuetako irakaskuntza-jardueratik eratortzen diren gastuak finantzatzen dira, aurrez aipaturiko etapa horietan. Ikastetxean osaturiko talde kopuruaren arabera kalkulatzen den diru-kopuru hori, pertsonal gastuetara (izan irakasle edo ez irakasle), nahiz ikastetxeen ohiko funtzionamenduak eragindako gastuetara bideratzen da.

**Hezkuntza**

## IKASIKER, IKERKETA LANETAN LAGUNTZEKO BEKETARAKO DEIALDIA

- **300.000 euroko zenbatekoarekin, 200 beka eskainiko ditu**
- **Beka jaso duten ikasleek Euskal Unibertsitate Sistemako ikerketa-taldeetan, BERCetan, Ikerketa Sanitarioko Institutuetan edo Ikerketa Kooperatiboko zentroetan eman ahal izango dute laguntza**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuak proposatuta, ikerketa lanetan laguntzeko Ikasiker beketarako deia egiten duen Agindua onartu du gaurko bileran.

Ikasiker bekak unibertsitate ikasleei zuzenduak dira, ikasketekin aldi berean (2021eko urtarriletik irailaren 30era bitartean) honako ikerketa talde hauetan laguntza emateko prest dauden ikasleentzat: Euskal Unibertsitate Sistemaren ikertaldeetan, Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroetan (BERC), Ikerketa Sanitarioko Institutuetan (ISI) edo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko zentro teknologikoetan, betiere BRTA partzuergo zientifiko-teknologikoari atxikita badaude eta Eusko Jaurlaritzak onetsitakoak eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agente gisa egiaztatutakoetan.

Programaren helburua da unibertsitate-ikasleak euskal ikerketa-sisteman egiten den oinarrizko ikerketa aplikatuaren arloko lanetan hastea. Aurtengo deialdi honetan beka kopurua handitu egin da aurten: A modalitatean 30 beka gehiago izango, dira eta B modalitatean 10 gehiago; finantza-zuzkidura lankidetzaren hilabete-kopurura egokitu da, eta ikasle bakoitzak hilean jasoko duen kopurua % 20 handitu.

300.000 euroko diru-kopuruarekin, 200 beka eskainiko dira, honako modalitate hauetan:

- A modalitatea (ikasturtean zehar, 2021eko urtarriletik ekainera): 150 beka.
- B modalitatea (udan, 2021eko ekainetik irailera): 50 beka

Beka hauek eskuratu nahi dituzten ikasleek unibertsitateko graduko titulazio ofiziala lortzera bideratutako ikasketa-plan bateko azken bi urteetako batean matrikulatuta egon beharko dute, Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate batean edo Estatuko unibertsitate batean. Bekaren onuradun izateko, Euskadin izan beharko dute administrazio-egoitza, eta lankidetza proiektu bat aurkeztu, lankidetza hori gauzatu nahi den ikerketa zentroak behar bezala ziurtatua.

**Kultura eta Hizkuntza Politika**

## EUSKO JAURLARITZAK IA 35.000.000 EURO BIDERATUKO DITU EUSKALTEGI PUBLIKO ETA PRIBATUEN LANA LAGUNTZERA

- **Euskal Autonomia Erkidegoak 101 euskaltegi ditu, eta urtero 35.000 ikasle inguruk ematen dute izena horietan**

Gobernu Kontseiluak euskaltegi pribatuen eta titulartasun publikoko euskaltegien lana laguntzeko bi partida onartu ditu bere gaurko bilkuran. Zehazki, Eusko Jaurlaritzak 22.158.000 euroko partida onartu du Euskal Autonomia Erkidegoko 62 euskaltegi pribatuen lana laguntzeko, eta beste 12.810.000 euro bideratuko ditu 39 euskaltegi publikoetarako.

Guztira, 34.968.000 euro bideratuko dira, iaz baino 1.594.000 euro gehiago (iaz 33.374.000 euro bideratu zituzten). Bi aurrekontu-partida horien bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko euskaltegien sarea osatzen duten 101 euskaltegien funtzionamendua bermatzen da. Euskaltegi horiek 35.000 ikasle inguru dituzte urtero, eta gero eta eskaintza zabalagoa eta pertsonalizatuagoa eskaintzen dituzte maila guztietan: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak ostegunean aurkeztuko du, Gasteizen, aurtengo euskaltegien matrikulazio kanpaina. Hitzordu horretan hasiko den ikasturteari buruzko datu guztiak emango ditu.

**Educación**

## 623,5 MILLONES PARA LA FINANCIACIÓN DE LOS CONCIERTOS EDUCATIVOS DE CENTROS DOCENTES

El Consejo de Gobierno en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, ha aprobado la previsión de gasto para la concertación educativa de centros privados de enseñanza no universitaria de Euskadi para el curso 2020-2021. La previsión de gasto para el citado curso es de 623.540.584,77 euros, para la concertación de 7.159 aulas.

En marzo de 2020 se dio apertura al plazo para que los centros educativos concertados solicitasen el número de aulas a concertar para este nuevo curso, en las siguientes enseñanzas: Educación Infantil (segundo ciclo), Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria, Bachillerato y Formación Profesional. De igual manera, se conciertan aulas estables de Educación Especial y Aulas de Aprendizaje de Tareas.

Una vez resueltas estas solicitudes, durante el curso 2020-2021, 314 centros docentes de Euskadi contarán con concertación: 34 centros en Araba, 160 en Bizkaia y 120 en Gipuzkoa. Entre todos suman un total de 7.159 aulas concertadas, en las etapas de la educación no universitaria anteriormente citadas.

Mediante los conciertos educativos se financia el gasto derivado de la enseñanza en centros privados en las etapas educativas anteriormente señaladas. La cuantía, calculada en función del número de grupos formados en cada centro, se destina a los gastos de personal, tanto docente como no docente, y el funcionamiento ordinario de los centros.

**Educación**

## CONVOCATORIA PARA LAS BECAS IKASIKER DE COLABORACIÓN EN TAREAS DE INVESTIGACIÓN

- **Con un importe de 300.000 euros, se ofrecen 200 becas**

- **Los estudiantes becados podrán prestar su colaboración en grupos de investigación del Sistema Universitario Vasco, BERC, CIC, IIS o Centros de Investigación Cooperativa**

El Consejo de Gobierno ha aprobado, a propuesta del consejero de Educación, la Orden que convoca las becas Ikasiker de colaboración en tareas de investigación.

Las becas Ikasiker están dirigidas a estudiantes universitarios y universitarias que, en régimen de compatibilidad con sus estudios, en el periodo comprendido entre el 1 enero de 2021 y el 30 de septiembre de 2021, deseen prestar su colaboración en Grupos de Investigación del Sistema Universitario Vasco, Centros de Investigación Básica y de Excelencia (BERC), Institutos de Investigación Sanitaria (IIS) y Centros de Investigación Cooperativa (CIC), y Centros Tecnológicos de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación adheridos al consorcio Científico-Tecnológico BRTA, reconocidos por el Gobierno Vasco y acreditados como agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación.

Este programa persigue iniciar a las y los estudiantes universitarios en las tareas propias de la investigación básica y aplicada que se realiza en el sistema vasco de investigación. En la convocatoria actual se ha incrementado el número de becas: 30 más en la modalidad A y 10 más en la modalidad B, adaptando la dotación financiera al número de meses de la colaboración, e incrementando en un 20% lo que cada alumno y alumna percibe al mes.

Con un importe global de 300.000 euros, se ofertarán un total de 200 becas, en las siguientes modalidades:

- Modalidad A (durante el curso académico, de enero a junio de 2021): 150 becas.
- Modalidad B (durante el periodo estival, de junio a septiembre de 2021): 50 becas.

Los estudiantes que opten a dichas plazas, con vecindad administrativa en el País Vasco, deberán estar matriculados en uno de los dos últimos cursos de un plan de estudios conducente a una titulación de Grado oficial universitario. Deberán cursar sus estudios en una universidad perteneciente al Sistema Universitario Vasco o en una universidad del resto del Estado. Habrán de presentar un proyecto de colaboración debidamente razonado y avalado por el grupo o centro de investigación donde vaya desarrollarse la colaboración.

**Cultura y Política Lingüística**

## EL GOBIERNO VASCO DESTINARÁ CASI 35.000.000 A APOYAR LA LABOR DE LOS EUSKALTEGIS PÚBLICOS Y PRIVADOS

- **La Comunidad Autónoma de Euskadi cuenta con 101 euskaltegis y alrededor de 35.000 alumnas y alumnos cada año**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión de hoy dos partidas dirigidas a apoyar la labor tanto la labor de los euskaltegis privados como la de los euskaltegis de titularidad pública. En concreto, se ha aprobado una partida de 22.158.000 euros dirigida a apoyar el trabajo de los 62 euskaltegis de carácter privado de la Comunidad Autónoma de Euskadi, mientras que se destinarán otros 12.810.000 euros para los 39 euskaltegis públicos.

Las dos partidas suman en total 34.968.000 euros, 1.594.000 euros más que el año pasado (el año pasado se destinaron 33.374.000 euros). A través de estas dos partidas presupuestarias se garantiza el funcionamiento de los 101 euskaltegis que conforman la red de euskaltegis de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Estos euskaltegis cuentan cada año con alrededor de 35.000 alumnas y alumnos, y una oferta cada vez más amplia y personalizada en todos sus niveles: A1, A2, B1, B2, C1 y C2.

El Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco presentará el jueves en Vitoria-Gasteiz la campaña de matriculación de euskaltegis para el curso que se inicia. En esa cita ofrecerá todos los datos sobre el curso que arranca ahora.